



Usurbilgo Udala

ADINEKO PERTSONENTZAKO USURBILGO EGUNeko ZENTROAREN ERABILERA ETA KUDEAKETA EMAKIDAZ KONTRATATZEKO EZAUGARRI TEKNIKOEN AGIRIA

1. XEDEA

Usurbilgo udalerrian, eguneko zentroaren erabilera-kontzesiorako eta horiek kudeatzeko deituko den gauzapena arautuko duten baldintza teknikoak finkatzea.

2. JARDUN EREMUA

Komunitateko zerbitzu moduan, eguneko zentroa zabalik dago Usurbilgo Udalerriko adineko pertsona guztientzat. Araudian xedaturiko baldintzak betetzen dituztenean, eta komunitate osoaren beharrak bete behar ditu; plaza kopuruak baino ez du mugatzen.

3. EGUNeko ZENTROAREN HELBURUAK

Helburu orokorra

Adineko pertsonen eta horien senideen bizi-baldintzak egokiak izan daitezen laguntzea eta bi alderdiei ahalik eta autonomia eta bizi-kalitate handiena ematea.

Helburu zehatzak

- Erabiltzaileen beharrei erantzutea, ahalik eta autonomia handiena lortzeko behar diren programak garatuz.
- Mendekotasuna duten adinekoak bere ohiko ingurunean egon daitezen ahalbidetzea.
- Erabiltzaileen senideei laguntza eta aholkuak ematea, adinekoak beren inguruan bizitzen jarrai dezaten eta zaintza lanak egiteko behar den jokabideari buruzko informazioa ematea.

4. ZERBITZUAREN ONURADUNAK

Onuradunek honako baldintzak bete beharko dituzte:

- Usurbilen erroldatua egotea eta erroldatua jarraitzea zerbitzuak irauten duen bitartean.
- Eskatutako zerbitzuan arreta jasotzeko egokitasuna izatea (RAI balorazioa kontuan hartuko da.....)
- Titularra mendekotasun egoeran dagoen pertsonatzat baloratua egotea, I., II. edo III. graduaz indarrean dagoen balorazio eskalaren arabera (39/2006, abenduaren 14koa)
- 65 urte eskaera aurkezten den urtean beteak izatea edo 60 urte %33ko desgaitasuna duten pertsonen kasuan. Baldintza hau betetzetik salbuetsi ahal izango dira, aldeko txosten medikuaren, psikologikoaren eta sozialaren ondotik, mendekotasun egoera aitortu zaien eta dituzten zertzelada pertsonal edo sozialak direla eta mota horretako zentroetan ematen den arretaren onuradun izan daitezkeen pertsonak.



Usurbilgo Udala

- Pertsona erabiltzaileen baldintzak, balorazio eta plazak lortzeko prozedura, arau hauetan xedatutakoarekin bat etorrira egingo da, martxoaren 24ko 7/2015 Foru Dekretua, Gipuzkoako Lurralde Historikoan mendekotasun egoeran dauden pertsonak egoitza zerbitzuetan eta eguneko zentroetan sartzeko araubidea arautzen duena, edo hori garatuko duten araudiak.
- Mendekotasun egoeran dagoen pertsonaren balorazio gradu espezifikoaren baldintzari jarraituz, martxoaren 24ko 7/2015 FORU DEKRETUko xedapen gehigarri bakarrean aipatzen duena kontuan hartuz, aparteko kasu gisa zerbitzu hauetan sartu ahal izango dira eskatzen dena baino gradu baxuagoko balorazioa duten pertsonak, edo 0 gradua dutenak aitortuta, baldin eta eskumena duen zerbitzu teknikoak irizten badio erabiltzaileak zentro horietan garatzen diren laguntza programen eta arretaren onuradun izan daitezkeela

Zentroan plazarik libre balego, gizarte-zerbitzuen mapan jasotakoari jarraituz, Buruntzaldea (Beterri-Buruntzako) eremuan errolatuta daudenak ere izango dute aukera atal honetan jasotako baldintzak betetzen badituzte eta eurek edo euren ordezkariak kasu hauetarako finkatutako prezioa ordaintzen badute.

5. EMAN BEHARREKO ZERBITZUAK

a) Ostalaritzako zerbitzuak

- Bazkaria eta merienda: pertsona bakoitzaren premietara egokitutako dietak prestatzea, nutrizioa berrikustea.
- Zentroko eremuak garbitzea.
- Zentroko osagai materialak mantentzea eta konpontzea.
- Zerbitzu telefonikoa.

b) Oinarrizko arreta pertsonaleko eta eguneroko bizimodua berregokitzeko zerbitzuak

- Pertsona bakoitzaren balorazio integrala eta diagnostikoa egingo da, eta arreta individualizatuko planean islatuko da, autonomiaren hobekuntza ahalbidetzeko eta gaitasunei eusteko helburuarekin.
- Eguneroko bizimoduko jarduerak egiteko laguntza-programak, esaterako:
 - Eguneroko bizimoduko oinarrizko jarduerak (garbiketa, elikadura, mugikortasuna, joan-etorriak, ohizko trebetasunen entrenamendua, etab.) egiteko gainbegirada eta laguntza.
 - Inkontinentziaren tratamendua
 - Botikak ematea
- Portaerako nahasketa eta asalduei eusteko programak. Gehiegizko portaeraren eta/edo inhibizioaren tratamendua, eusteko bide horretarako laguntza.

c) Zerbitzu sanitarioak

- Osasun-zentroko zerbitzu mediko eta erizaintzako zerbitzuekiko koordinazioa: eguneko zentroa beren erreferentziako osasun-zentroarekin koordinatu beharko da, Osakidetza-tik beharrezkoa gertatzen den arreta medikoa nahiz erizaintzakoa eman ahal izateko
- Fisioterapia

d) Zerbitzu psikosozialak

- Laguntza pertsonala eta tratamendua eremu desberdinetan, modu individualizatuan nahiz



Usurbilgo Udala

taldean.

- Funtzio kognitiboetan esku hartzeko programak: psiko-estimulazioa, oroimenaren entrenamendua, errealitatearekiko orientazioa, terapia okupazionala eta/edo prestakuntzakoa.
- Funtzio psiko-afektiboetan eta portaerazkoetan esku-hartzeko programak.
- Heziketa, kultura eta aisia-mailan esku hartzeko programak.

e) Informazio, arreta eta parte hartzeko zerbitzuak

Zentroak informazioko eta parte hartzeko sistema eduki behar du:

- Maila orokorrean: zentroaren zerbitzuen eskaintza, barne-erregimeneko araudia, jarduera-programaren egutegia, erabiltzaileen eta familien gogobetetasuna ebaluatzeko sistemak, kekek, iradokizunak eta erreklamazioak egiteko prozedura, erabiltzaileen partaidetzarako bideak.
- Maila indibidualean: kontratu indibiduala, pertsona erabiltzaile bakoitzaren espedienteak, plan indibidualaren elaborazioan eta jarraipenean parte hartzeko sistema.
- Jakinarazpeneko parte bat astero emango zaie familiei; egokitze fasean edo egoeraren arabera egunero emango zaie. Bertan, zentroan egindako egonaldia alderdirik garrantzitsuenen eta gertatutako gorabeheren berri emango zaie.

Azaldutako prestazio guztiak diziplina anitzeko ikuspegi batetik prestatuko dira, eta horrek, Atentzioko Banan-Banako Plan bat eskatuko du. Erabiltzaile bakoitzaren beharrak kontuan hartuta, aipatutako plana egingo da, adinekoa eguneko zentroan sartzen denean.

Zentroko profesional guztiek hartuko dute parte, eta dagokion erregistroan jasoko da. Planak gai hauek jasoko ditu:

- Adinekoaren defizit edo ezgaitasunen balorazioa.
- Erabiltzaile bakoitzari detektatutako defizit edo ezgaitasunak gutxitzeko edo konpentsatzeko ekintzak diseinatu eta gauzatzea.
- Adinekoak asaldura fisiko edo psikikorik edukiz gero, asaldura horren garapenaren kontrola eta segimendua, bai eta asalduraren ondorioz sor daitekeen menpekotasunarena ere.
- Jarritako tratamendu medikoaren segimendua, beharrezkoa denean.
- Erabiltzaile eta senitartekoekiko elkarriketak, behar diren baliabideak koordinatzeko.
- Ebaluazio bat egingo da, sei hilean behin gutxienez.

6. ZERBITZU-MOTA ETA PLAZA-KOPURUA

Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako sailak onarturiko plaza-kopurua eta modalitateak: Egoitzak eguneko zerbitzua une honetan gehienez 18 laguni emateko aukera dauka, lanegun ordutegiarekin, hots, astelehenetik ostiralera, eta denetara 6 laguni asteburu eta jai egunetan.

Udalak, Aldundiarekin hitzartuta, asteburu eta jai egunetako leku kopurua handitu ahal izango du eta horrek berarekin ekarri dezake langile kopurua handitzea, beti ere Aldundiak urriaren 17ko 202/2000 Foru Dekretuaren arabera eskaturiko ratioak betetzen badira.

7. EGUTEGIA ETA ORDUTEGIA



Usurbilgo Udala

Bi modalitate egongo dira: lanegunak (astelehenetik ostiralera) eta jaiegunak (asteburuak eta jaiegunak).

Ordutegia:

Eguneko zentroaren ordutegia honakoa izango da: goizeko 9:30etan hasi eta arratsaldeko 18:00arte astelehenetik ostiralera. Asteburu eta jai egunetako ordutegia honakoa izango da: goizeko 9:30etan hasi eta arratsaldeko 17:30arte.

Zerbitzuaren egutegia:

Usurbilgo Eguneko Zentroa urteko egun guztietan irekita egongo da egun hauek izan ezik: urtarrilaren 1ean, urtarrilaren 6an, abenduaren 25ean eta Udalak urtero herriko jai eguna izendatzen duen egunean.

Hala ere esleipendunak urtero egutegia aurkeztuko du eta Udalak onartu. Udalak beharrezkotzat jotzen badu, ordutegian aldaketak eman daitezke.

8. PLAZEN SAILKAPENA ETA ERREGIMEN EKONOMIKOA

Plaza okupatua: Zerbitzura sartzen den une beretik pertsona bati esleitua dagoen plaza. Horrek indarrean dagoen tarifaren balio bereko zenbatekoa jasotzeko eskubidea sortuko du.

Erreserbatutako plaza: Erabiltzaileek lekua erreserbatzeko eskubidea kasu hauetan izango dute:

a) Borondatezko absentziagatiko erreserba.

-Absentzia zentroari aditzera eman bazaio gutxienez zazpi egun natural lehenago, lekuaren erreserba pertsona zentroan ez dagoen lehen egunetik beretik aplikatuko da

-Aurretik abisatu gabe gertatzen denean, zazpigarren egunetik aurrera aplikatuko da.

*Erreserba gutxienez zazpi egun naturalerako izango da, eta gehienez 45 egun naturalekoa, adinduen tzako zerbi tzuetan, urtean.

b) Ospitaleratze, osasun arazo edo antzeko beste arrazoiren batengatiko erreserba.

-Egoera hori zentroari jakinarazi bazaio gutxienez zazpi egun natural lehenago, lekuaren erreserba pertsona zentroan ez dagoen lehen egunetik aplikatuko da.

-Ustekabekoa edo larrialdi baten eraginez gertatua bada, zazpigarren egunetik aurrera aplikatuko da. Azken kasu honetan, lekua erreserbatzeko eskubidea gutxienez zazpi egun naturalerako izango da, eta gehienez 90 egun naturalerako. Epe hau luzatu ahal izango da, hori justifikatzen duen aurretiazko txosten batez.

Plaza ez okupatua: inolako pertsona edo erabiltzaileri esleitu gabeko plaza. Ez du inolako eskubide ekonomikorik sortzen.

*Erregimen ekonomikoa aplikatzerakoan, Aldundiak plazei dagokien sailkapena onartzen du Udalak.

9. EGOKITZE-ALDIA ETA GORABEHERAK

Egokitze aldia:



Usurbilgo Udala

Eguneko Zentroko erabiltzaileak diren pertsonak egokitzeko aldia eta horien erabilera-erregimena mendeko adineko pertsonentzat Gipuzkoan plazetara irteteko eta horiek esleitzeko erregimena arautzen duen apirilaren 30eko 20/2002 Foru Dekretuan ezarritakoa izango da, horiek garatu eta aurrera eramateko ematen diren foru-agindu, ebazpen eta jarraibideetan ezarritakoarekin bat.

Egokitze-aldiak irauten duen bitartean, Zentroko zuzendaritzak edo, horren delegazioz, pertsona erabiltzailearen erreferentziako pertsonak, sortuz doazen arazo guztiak aztertu eta komentatuko dituzte une oro pertsona erabiltzailearekin edo, horren delegazioz, baita bere erreferentziako pertsonarekin ere, eta egokitze on bat lortzeko irtenbide egokiak bilatuko dira.

Behin aldi hori pasatu ondoren, eta arrazoi ezberdinak direla medio, egokitzapen egokirik lortu ez bada, Zentroak txosten bat egin beharko du horretarako arrazoiak azalduz, eta Udaleko Gizarte Zerbitzuei jakinaraziko dio gertatutakoa.

Gorabeherak:

Kontzesiodunak zerbitzuan gertatzen diren gorabehera guztiak Usurbilgo Udaleko Gizarte Zerbitzuen sailari jakinaraziko dizkio, pertsona erabiltzaileen alta eta bajei, behin betiko nahiz aldi baterakoei, dagozkienak gertatzen diren datatik hasi eta 2 eguneko epearen barruan.

Plaza-erresebatzat joko dira eta, beraz, kobratzeko eskubidea sortuko dute, erabiltzailea ospitale-zentro batean ingresatzearen ondorioz edo antzeko bestelako arrazoiren baten ondorioz gertatzen diren aldi baterako absentziak, Usurbilgo Udaleko gizarte zerbitzuetako sailak horrelakotzat ulertzen dituenean.

Behin betiko bajatzat joko dira, aldiz, erabiltzailearen heriotzak edo borondatezko bajak eragindako absentziak, eta baita Usurbilgo Udaleko gizarte zerbitzuetako sailak horrelakotzat ulertzen dituenak ere.

Zerbitzuaren garapen eta martxa egokiari erasan diezaiokeen beste edozein gorabehera ere ahalik eta eperik laburrenean idatziz Udalari jakinarazi beharko zaio.

Osasun eta Gizarte-Ongizate Batzordeari zerbitzuarekin zerikusi duten gertakari guztien berri emango da, eta halaber, bidezko proposamenak egitea, hark eztabaida eta onar ditzan.

10. GIZA BALIABIDEAK ETA ANTOLAMENDUA

Eguneko zentroak eman beharreko zerbitzuak bermatzeko adina langile eta azpiegitura edukiko ditu. Zerbitzuen kontzesiodunak, aurreikusitako zerbitzuak ahalik eta modurik egokienean eman ahal izateko antolamenduaren egitura aurreikusi beharko du, zerbitzuak erabiltzen dituzten pertsonen emaitzei dagokienez.

Hornitzaileak, mendeko adineko pertsonentzat ezarritako eguneko zentroen urriaren 17ko 202/2000 Dekretuaren 1.8 eranskinean ezarritako langileen ratioak betetzen direla bermatu beharko du gutxienez.

Horrez gain, zerbitzuak modulu desberdinetan antolatu beharko ditu, erabiltzaileen arreta eta gainbegiratze individualizatua posible izan dadin, segurtasun-alderdiak autonomiaren arlokoekin, hautatzeko aukerekin eta erabakiak hartzekoekin bateratuz.



Usurbilgo Udala

Eskaintzan aurkeztutako proposamenean arreta eta laguntzako langileak lanegunetan nahiz jaiegunetan modu egokian antolatuko dira.

11. BARRUKO ETA KANPOKO KOMUNIKAZIOAK ETA IRUDI KORPORATIBOA

Modu orokorrean esanda, plegu honen xede eta helburu diren jardueri aipamena egiten dieten zentro nahiz zerbitzu bakoitzeko jakinarazpenetan, Usurbilgo Udalaren izena agertu beharko da. Horrez gain, zentro barruan irudia eraman dezaketen identifikazio edo seinalizazioko osagaietan, paper-gauzetan, uniforme eta gainerako euskarrietan

12- INGURUMENA

Eguneko zentroan sortzen diren hondakinak Usurbilgo Udalak araututako hiri hondakinak bildu eta tratatzeko udal ordenantzaren arabera kudeatuko dira

13- MANTENTZE PLANA

Lizitatuzaileek, bere eskaintzako B gutun-azalean ezinbestean sartu beharreko edukien artean, kontratuaren xedea den zerbitzua emango duten zentroen Mantentze Plan bat aurkeztu beharko dute, eta bertan ondasunak eta instalazioak adieraziko dira, baita ekipamendua ere (laguntza teknikoak barne).

Aurkezpen hori egokia izan dadin *Gipuzkoako Foru Aldundiarenak diren eraikinetako Erabiltzailearen Mantentze Liburua (2006)* aipatzen da erreferentzia gisa, interesatuei kontratatzailearen profileen eskainiko zaiena, bete beharreko baldintza minimoak adierazten baitira bertan. Liburua betetzerakoan jardueren maiztasuna adieraziko da, kasu guztietan, eta lanak egikaritzeko modua ere adieraziko da, baliabide propioak nahiz lizitatuzaileak ondorio horretarako dauzkan enpresaz bestelako profesionalak aipatuz.

Kontzesiodunak egin beharreko mantentze eragiketatzat ulertzen dira:

- Zentroko osagaiak garbitu, horien egoera eta funtzionamendua aldizka berrikusi, eta, behar izanez gero, konpontzeko eragiketak.
- Zentroaren funtzionamendu egokia ziurtatzeko produktuak edo piezak berrikustea, ekartzea, kentzea edo ordeztzea esan nahi dutenak. Lan horien artean sartzen dira era berean iraungitze-epe ezaguna duten pieza edo osagaiak ordeztzea, horiek berritzea aurreikusia baitago sistemaren funtzionamendu normalaren barruan, eta ez dakar zerbitzuaren etenaldirik, eta baita helburu bezala osagai jakin bat puntuan jartzea daukaten konponketa txikiak ere, osagai horrek bere funtzionalitatea galdu ez duenez eragiketa ez baita berrosatetzat hartzen.

Kontserbazioko eragiketatzat hartzen dira matxuratutako osagai bat berriro egoera onean jartzeko beharrezkoak diren berrikuspen eta berrikuntzako eragiketak, beharrezkoak baitira osagai hori berriz funtzionala izateko.

14. INFORMAZIO-SISTEMA

Laguntza-kudeaketako informazio-sistema:



Usurbilgo Udala

Kontzesiodunak zentroan artatutako pertsoneri buruzko informazioa jasoko duten erregistro egokiak sortu edo mantendu beharko ditu, hurrengo atalei dagokienez, besterik ezean:

- Identifikazio-datuak
- Gizarte-segurantza
- Historia klinikoa: diagnostikoa, aurrekariak eta tratamendua (botikak, sendaketak eta prebentzioko pautak). Egindako balorazio medikoak (analisi klinikoak, nutrizio-mailako balorazioak) eta ospitalean izandako ingresuak. Datu horiek guztiak historikoak izango dira. Eta datu horiei beste datu psikologiko batzuk ere gehitu beharko zaizkie (egindako proben historikoa), gaixoa jasotzen ari den tratamendu psikologikoarekin batera.
- Gaur egun behar dituen oinarrizko zaintzak: dieta-mota, xurgatzaile-mota, erabiltzen diren laguntzako gailuak (garabiak, loturak), ezarritako erizaintzako pautak (errehabilitazio txikia, ...), erabilitako kontrolak eta erregistroak, ...
- Historia soziala: familiartekoak (eta horiekiko duen harreman-mota), desgaitasunik baduen ala ez eta tutoretza, zaletasunak, jarduera eta talde terapeutikoetan duen partaidetza, zentroan izandako gorabeherak, azken nahiak,....

Arreta Indibidualeko Plan bat egingo da erabiltzaile bakoitzeko eta informazio hori euskarri informatikoan erregistratua egongo da, datu horiek beste aplikatibo batera esportatzeko aukera emango duen datu-base estandar baten gainean zehazkiago esateko.

Emakida uzten duen kontzesiodunak ezingo du aipatutako datu horien kopiarik gorde, eta kontratua dela medio artatu dituen pertsoneri buruzko datu guztiak bere ekipo informatikoetako fitxategi guztietatik ezabatuak izan direla bermatu beharko du.

15. EKIPAMENDUA ETA BANAKETA ESPAZIALA

Esleipendunak egoera onean zaindu eta mantendu beharko ditu zerbitzuak dituen ondasunak eta instalazioak. Horretarako instalazioen eta ekipamenduen mantentzea eta iraunaraztea bermatzeko beharrezko diren gastuak bere kargura izango dira, legez jabearen ardurakoak direnak izan ezik.

Usurbilgo Udalak lokala Baldintza Teknikoen orrietako I. Eranskinean zehazten diren ondasunez horniturik utziko du. Udalari dagokio urteen poderioz apurtzen direnak eraberritzen joatea. Kontratuari atxikiko zaio, eranskin moduan, Udalak kontratistaren esku uzten dituen gauzen inbentarioa. Esleipendunaren kargura joango da ekipamendu guztia osatzen duten instalakuntza eta makineriaren mantenimendua erabilera desegokiari lotua dagoenean. Kontratu epea bukatzean dagoenean berriro ikuskapen bisita luzatuko da, Udalari ondasun guzti hauek hartu zituen moduan eta erabiltzeko gai itzultzen dituela egiaztatuko delarik. Ondasunik faltako balitz edo modu desegokian edo txarragoan baleude, Udalari berauek birjartzeko diru kopurua eman beharko dio, erabilera arruntaren ondoriozko desgaste edo higadura kalteak salbu.

Usurbilgo Udalaren berariazko baimenik gabe ez da inolako obrarik egiterik izango ez eta ekipamenduak aldatzerik ere.

Eguneko zentroaren banaketa espazialaren inguruko informazioa berriz, Baldintza Teknikoen orrietako II. Eranskineko planoan zehazten da.

16. URTEKO MEMORIA



Usurbilgo Udala

Urtea amaitzearekin batera esleipendunak zerbitzuaren memoria aurkeztu beharko du.

I. ERANSKINA: USURBILGO EGUNEKO ZENTROAREN -Kalezar 15- HORNIDURA ETA EKIPAMENDU- ZERRENDA

ESPAZIOEN BANAKETA

1	Harrera gunea eta jantzitegia
2	Bulegoa
3	Bainu geriatrikoa
4	Garbigela 1
5	Office
6	Jantokia
7	Atsedena gela
8	Ekintzetarako gunea
9	Garbigela 2
10	Jantzigela

1. HARRERA GUNEA ETA JANTZITEGIA

- Armairu enpotratua

2. BULEGOA

- Mahai bat 1,40x 0,80 x 0,74 m-koa kaxoiekin bulegorako kantu borobilduak, hotzean laminatutako altzairua , epoxi grisean margotua. Hankak berdingailuarekin. 30 mm-ko estalkia eta bukaerak "melanina2 materialarekin.
- 2 Aulki tapizatuak
- 1 Armairua bulegorako 2 artxibo teleskopikoekin behe partean, 2 ate kristale fume serrailarekin goi partean, barruan hiru apal pago argian egindakoak. Neurriak 0,95 x 0,42 x 1,98 m
- 1 Armairua 1,00 m luzera (3 modulo) eta 2,00 m altuerarekin, apalarekin goi partean eta behe partean giltzarekin isten diren egurrezko bi ate.
- Apalak dituen egurrezko mueble estu altua
- 1 Garbitasun produktuen orga
- 1 Jazkien orga
- 1 Osasun-azterketarako mahaia
- 1 Bi tramuko aulkia (banquillo de dos tramos)
- 1 paper suntsitzaile
- 1 Botika-kutxa

3. BAINU GERIATRIKOA

- 2 Helduleku 60 zm
- 2 Helduleku 30 zm
- 2 Helduleku eraisgarriak (abatibles)



Usurbilgo Udala

- 1 Armairua 1,28 x 2,12 x 40 apalekin Beira –arasa (Bitrina)
- 1 Scalamobil
- 1, 20 litroko kubo
- 24 eskuoihal (toalla) handiak
- 24 eskuoihal tartekoak
- 1 Sendagarrien orga (carro de curas)
- 1 komunerako asientu tapa txuria
- Ispilua
- 12 kasillero eta 6 apal dituen mueble txuria

4. GARBIGELA 1

- 2 helduleko eraisgarriak
- 2 balda txuri
- Ispilua

5. OFFICE-a

- 1 Kafetera
- Hozgailua
- Altzari zintzilikatua baso eta plateren xukaderarekin
- Lanerako herdoilezineko mahaia (enzimera)
- Ontzien garbigailua

6. JANTOKIA

- 5 Mahai 0, 90 x 0, 90 x 0,75m-koak jangelarako, kantu borobilduak. Pagoarekin egindako estruktura. Bukaerak pagozko txaparekin. Lauki zuzeneko sekzioa duten 4 hanka, mahai azpian gorpila duten aulkiak sartzeko modukoak.
- 21 Aulki jangelakoak, besoekin eta ergonomikoak. Pagoarekin egindako estruktura. Eserlekuak eta bizkarraldeak diseinu ergonomikoa. Izkinak borobilduak. Eseri eta altxatzerakoan lagungarri diren beso euskarriarekin. Tapizeri binilikoa, DIN 75 200/DIN 53 438 MUSS 302, M², M1, BS 5852crib eta BS 7176 arauak betetzeko fabrikaturikoa. Aulkien altuera 78 cm-koa da.
- 1 Armairu ontzitegi (alacena) 1,50 x 2,19 m, ate, kaxoi eta apalekin
- 1 Janari-karroa
- 1 Mahai-tresneri osoa (kubiertoa) 18 laguntzat

7. ATSEDENERAKO GUNEA

- 18 Lasaitasunerako tapizatutako aulkiak, 12 naranja eta 6 granate.
- 12 buru atsedenerako osagarriak butakak bezalako naranja tapizarekin tapizatuak
- Hankak jartzeko 6 piezero naranja
- 1 Armairua 3,20 x 2,52 x 2,00, 12 takila itxiekin, ate eta giltzekin



Usurbilgo Udala

- 4 takila armairu pagoan egindakoak 25X50X180
- 2 takila armairu pagoan egindakoa 30X50X190
- 18 Udarako banakako mantak
- 18 Neguko banakako mantak

8. EKINTZETARAKO GUNEA

- 3 Mahai errektangularrak, 1,60 x 0,85 x 0,75 m-koak borobildutako kantuekin. Pagoarekin egindako estruktura. Bukaerak pagozko txaparekin. Lauki zuzeneko sekzioa duten 4 hanka, mahai azpian gurpila duten aulkiak sartzeko modukoak.
- 17 Aulki ekintza gelarako, besoekin eta ergonomikoak. Pagoarekin egindako estruktura. Eserlekuak eta bizkarraldeak diseinu ergonomikoa. Izkinak borobilduak. Eseri eta altxatzerakoan lagungarriak diren beso-euskarriarekin. Tapizeri binilikoa, DIN 75 200/DIN 53 438 MUSS 302, M², M1, BS 5852 crib, eta BS 7176 arauak betetzeko fabrikaturikoa.
- Haurreskolatik ekarritako sukaldeko egurrezko mueblea fregadera eta apalekin
- 1 Armairua 3,00 m luzera (3 modulo) eta 2,00 m altuerarekin, apalarekin goi partean eta behe partean giltzarekin isten diren egurrezko bi ate.
- 1 Armairu baxua, 4,00 m luzera, 1,00 m altuera eta 0,70 m sakonerarekin (apalak eta atekin). Pagozko estrukturarekin.
- 1 Kuboa
- 1 Radio-kaseta
- 1 Ordularia
- 1 Paralelak
- 1 Eskuetako mahaia
- 1 Pedaleo-ariketa egiteko aulkia
- 1 Ariketak egiteko paretean jarrita dagoen barra
- 1 telebista
- 1 Aire-garbigailua

9. GARBIGELA 2

- Erratzak jasotzeko melaminaz egindako armairu txuria PVCn kanteatua. Imandun sarrailarekin, PVCko hankak 45X42X200



Usurbilgo Udala

- Armairu kasillero txuria
- 2 Helduleku eraisgarriak

10. JANTZIGELA

- 2 zatiz osatutako metalezko takila gris eta urdina. Neurriak 25 ate bakoitza x50x180

BESTEAK

- Argazki kuadro paisai ezberdinak eta kristalarekin enmarkatuak
- Kanporako 12 aulki gorri metatzeko modukoak, aluminiozko hankekin

II. ERANSKINA: Eguneko zentroaren planoak.